

IBON KOTERON ALBOKARIA

«TRADIZIOA EBOLUZIO BAT DA, BIZITZA BEZALA»



Tradizioari muzin egin gabe, eboluzioaren aldekoa da Ibon Koteron albokari bilbotarra.

Testua: **Alain Laiseka Villalba**
Argazkiak: **Jose Sampedro**

Duela zortzi urte inguru kalera-tu zuen bere estraineko lana. “Leonen Orroak” diskoan alboka zen musika tresna nagusia. Hori berria zen oso Euskal Herrian. Kepa Junkerarekin kaleratutako lanak bultzada garrantzitsua eman zion albokari. Gazteen artean ezagun egin zuen. Orain lan berriarekin dator Ibon Koteron. “Airea” (Elkarlanean) diskoak eragin berbera sortarazi nahi du musika zaleen artean.

Hogei urte inguru zenituela hasi zinen alboka jotzen ikasten, zerk erakarrita baina?

Leon, Maurizia eta Fasioren diskoak ezagutzen genuen etxean. Maitagarria zen guretzako. Oso soinu errotikoa zen, arbasoena. Alboka zahar hori entzun eta galdera bat zetorkigun bururua: “Hau nondik dator?”. Ikusi genuen egunkarian eskolak ematen zirela Bilboko Txistua, Alboka eta Panderata Akademian eta hara joan nintzen anaiarekin batera. Hor hasi ginen ikasten. 1987an izan zen hori. Ni artean unibertitatean nengo.

Zaila suertatu zitzaizun alboka jotzeko teknika ikastea?

Ez bereziki. Urriari hasi eta urtarilerako banuen Leonen erreperitorioa mamituta. Hiru hilabetean tresna menperatzen nuen. Hortik aurrera zein urrats eman behar nituen hasi nintzen pentsatzen.

Burutazio horiek nora eraman zintuzten?

Leon eta Txilibrinez aparte zeuden beste albokariak zer aporteratzen zuten begiratzeari ekin nion. Harrituta gelditu nintzen gehinek zaharrek bezain ondo jotzen ez zutelako konturatzean. Salbuespenak salbuespen, albokari zaharren grabazioetan askoz bizitasun handiagoa zegoela jabetzen nintzen. Horri buelta eman behar zitzaion.

Albokak soinu jarraia duenez, notak ezin dira moztu putsa etenez. Beste modu batez egin behar da, atzamarren bitartez. Hemen sikieran, albokari zaharrek bazituzten sistema batzuk oso argiak eta bereziak apaindurak egiteko, notak banatzeko eta erritmoak markatzeko. Ni hasi nintzen garai hartako folk taldeetan ia-ia desagertuta zegoen. Albokak txirulaxo baten papera betetzen zuten, berez duen grazia galduta.

Alde handia zegoen, beraz, albokari zahar eta folk talde horietan jotzen zuten artean?

Kolorerik ez zegoen. Albokari zaharrek askoz hobeak ziren. Hortaz jabetuta, folk taldeen erreperitorioa hartu nuen, baina albokari zahar batek joko lukeen bezala landuz.

Zaharra eta berriaren arteko nahasketa esan gura duzu?

Doinu berriak sortzearen ideia eta estilo zaharra berriro errepereratzea da egin dudana. Nire eskolan ikasi duten albokariak mantendu dute hori, hots, estilo zaharrari eutsi diote.

Alboka jotzen ikasten hasi zinen garai hartan, nahiko baztertuta zegoen tresna zen, ezta?

Bai, eta Leonek berak esaten zuen, hasiera batean, denbora ba-

tez egona zela pentsatzen galduko zela. Gero, beranduago, ni hasi nintzenez, ordea, esaten zuen: «Ez da galduko, akademia jarri dute Bilbon, eta ez da galduko». Berak ere ikusi zuen gazte generazio bat zetorrela, beste motibazio batez eta euren estiloari eusten ziona. Ordura arte ez zeuden horretaz oso sinetsita.

Alboka eskola aipatu duzu. Alboka jotzen hasi eta handik lasterrera sortu zenuen, zer moduko harrera izan zuen hasieran?

Jende gutxi etortzen zen estraineko urteetan. Gogoratzen dut urte baten ikasle bakarrak egon nintzela. Horrek fenomeno ikasi zuen eta gaur egun ere elkarrekin jotzen dugu batzutan.

“Leonen Orroak” diskoak kaleratzea bultzada handia izan zen albokarentzat?

Gazte asko hurbildu ziren horren ostean. Ordura arte akaso, alboka ezezaguna zen beraiarentzat. Espero dut oraingoan ere antzeko eragina izatea.

Estilo zaharrari eutsi bai, baina berrikuntzarako lekuri bai dago albokari?

Bai, noski. Sorkuntza berri asko egin ditugu, eta ez bakarrik doinuetan. Jotzeko eran ere berrikuntzak sartu ditugu. Albokari zaharren erreperitorioan agertzen diren kontuetan oinarrituz jotzeko bestelako moduak ere landu ditugu.

Kepa Junkera. Harreman estua duzu beragaz, noiz ezagutu zenuen?

Hasi eta gutxira. Ni Kukubiltxogaz ibiltzen nintzen jotzen. Kepak Behin baino gehiagotan ikusi ninduen eta interesa piztu zitzaion. “Alboka eta dultzaina jotzen duen gizon arraro hori nor izango da”, pentsatuko zuen. Halako soinu tresnak ordura arte giro horretatik apur bat baztertuta zeuden. Gazteak gai horretara dedikatua, nahiko espezializatuak eta ezberdin jotzen ikusteak ez zen oso arrunta. Handik gutxira gonbidatu ninduen berarekin kontzertu batean parte hartzera. Estraineko kontzertu hura Arriagan egin genuen. Hortik aurrera elkarrekin jarraitu dugu.

Eta tartean, biok batera kaleratu zenuen Leon Bilbao albokari handiaren omenezko “Leonen Orroak” diskoa.

Kepak asmoa zeukan albokarekin zerbait egiteko. Oso esperientzia polita izan zen eta disko oso bat albokaren inguruan egiten zeneko estraineko aldia izan zen. Disko hori albokarentzako oso inportantea izan da. Uste dut musikalki ere beste pista batzuk eman dituela eta musika panorama aldatu egin dala horren ondoren. Eragin handia izan du.

Leon Bilbao, Txilibrin... maisu zaharrek harreman zuzena izan zenuen zuek. Tartean, ordea, hutsune handi bat dago, ezta?

Bai, hala da. Tartean ezer gutxi dago. Mariano Barrenetxeak egin zuen ikerketa lana aipatu daiteke. Ikerketa horiek eta zaharren grabazioak beharrezko urratsak izan ziren albokaren zerbait guregana heltzeko. Baina albokari lez jarduten ez dago ezer. Gugandik hurbilago dago Juan Mari Beltran eta tarteko belaunaldirik ez da egon.

Eta atetik bai dator belaunaldi berririk?